

ERROSE BUSTINTZA 'MAÑARIKO'-REN MENDEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Mañaria, 99-X-22

*Jose Luis Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea*

1999.eko urriaren 21a, osteguna, Urtsula donearen eguna:

Arratsaldeko 6,30etan, *Zumelaga* Errose Bustintzaren jaiotetxearen aurrean, herriko dantzari baten aurrekuaren ondoren, Jabier Arteaga Mañariko alkateak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, oroitarria agerian jartzen dute *Zumelagako* horman. Jaraian, eta Mañariko "Kirikiño" abesbatzak kanta saioa eskaintzen du.

Ondoren, 7etan, hitzaldia. Mahaipuruan: Jabier Arteaga, herriko alkatea; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Xabier Kaltzakorta, euskaltzain urgazlea, hizlari. Gaia: "Errose Bustintza, herri-kronista eta idazle".

Horrez gain, hauek biltzen dira: Jose Antonio Arana Martija eta Txomin Peillen euskaltzainak; Martzel Andrinua, Luis Baraiazarra, Igone Etxebarria eta Jose Luis Lizundia euskaltzain urgazleak; Gotzon Lobera, Bizkaiko Diputazioko Euskara zuzendaria; Karmele Gonzalez de Audikana, zinegotzia; Anton Mari Aldekoa-Otalora, Gerediaga elkarteke lehendakaria eta Jon Irazabal, idazkari-kudeatzailea eta jende andana bat.

1999.eko urriaren 22a, ostirala:

Goizeko 10etan, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa azpibatzerdea eta Onomas-tika batzerdea biltzen dira.

Arratsaldeko 4etan Euskaltzaindiaren Zuzendaritza.

7etan, bigarren hitzaldia. Mahaipuruan: Jabier Arteaga, herriko alkatea; Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Henrike Knörr, euskaltzainburuordea eta Igone Etxebarria, euskaltzain urgazlea, hizlari.

Gaia: "Errose Bustintza eta andrea Bizkaiko euskal literaturan".

Hauk biltzen dira, besteak beste: Patxi Goenaga, idazkaria; Jose Antonio Arana Martija, diruzaina; Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea; Karmele Gonzalez de Audikana, zinegotzia; Anton Mari Aldekoa-Otalora, Gerediaga elkarteko lehendakaria eta zenbait herritar eta euskaltzale.